# Eguberrietako

GEHIGARRIA

2018

guaixe

# Negu gorriari aurre egiteko, lentzeria gorria



Abenduaren 31n Urtezahar-gaua ospatuko dugu eta gauerdian 2018. urteari amaiera emanen diogu eta 2019ari ongi etorria. Asko dira urte berrian zoriona izateko egiten diren erritualak eta jarraitzen diren superstizioak: urte berriaren hasieran eskuineko oinarekin zapaldu, gure desioak eta ametsak paper batean idatzi eta eskuineko zapatan sartu, urrezko eraztuna xanpai kopan sartu...

Ohituretatik ohikoenetarikoa Urtezahar-gauan lentzeria edo barruko arropa gorria eramatea da. Sinesmenaren arabera, urtea aldatzen den gau horretan barruko arropa gorria eramanez gero, urte osoan zorte ona izanen da. Hala ere, ohitura eta kondaira guztiak bezala, hainbat bertsio izan ohi dira.

Munduko hainbat tokitan diotenez urte osoan zehar bizitzaren arlo guztietan zoriona izateko barruko arropa gorria jantzi behar da; beste hainbat tokitan, aldiz, maitasunean eta maitesuan zortea izateko eraman behar da lentzeria gorria, izan ere, kolore gorria maitasunari, bihotzari eta maite-garrari lotuta dago. Hortaz, toki hauetan zoriontasuna, poztasuna eta aberastasuna lortzeko lentzeria edo barruko arropa horia eraman behar da abenduaren 31n. Diotenez, barruko arroparen kolore baten eta bestearen efektua handitzen da arropa oparitutakoa bada.

Duela gutxiko superstizioa dirudien arren, jatorria Erdi Aroan omen dago; hala ere, zaila da benetako jatorria zein den ezagutzea. Baina iturrien arabera, Urtezahar-gauen barruko arropa gorria eramatearen tradizioa, esan bezala, Erdi Arotik dator. Eliza katolikoaren eta gizartearen goi estamentuen eraginez Erdi Aroa debeku handiko garaia izan zen, are gehiago herri xumearendako. Kolore gorria deabruaren eta sorginkeriaren kolorea zela zioten eta, ondorioz, jantzita edo arropetan eramatea debekatuta zegoen.

Hala ere, kolore gorria odolaren eta bizitzaren kolorea zela sinesten hasi ziren, eta, beraz, neguaren zuritasunari aurre egiteko, herritarrak kolore gorria janzten hasi ziren. Soinean eramatea debekatuta zegoenez, barruko arropa janzten zuten. Beraz, barruko arropa gorria eramatea bizitzaren eta zorte onaren sinbolo bihurtu zen.









# Tradizioa berrasmatzen



Euskal jantzietan ere modak jarraitzen dira. Joera batzuk denboran mantentzen diren arren, beste batzuek urtero aldatzen dira: euskal jantziak etengabe berrasmatzen ari dira. Eta oinetakoak ez dira joera berrietatik kanpo gelditzen.

Denboraldi honetan euskal jantzietan joeran dauden koloreak leunak dira. Gorriak, granateak eta berde ilunak dira beti gogokoenak. Dotoretasuna ematen diete jantziei. Hala ere, koloreak egun batetik bestera aldatzen den joera bat dira. Esaterako, aurreko urteetan lerroak izan zen joeran.

Goialdean koratiloa da oraindik ere jantzi nagusiena. Alderantzikagarriak izan daitezke.

Euskal jantzia osotasunean egiteko oinetakoak falta dira eta oinetakoetan ere joerak daude. Euskal jantzien ohiturazko oinetakoak lehenago baserritarrek janzten zituzten oinetakoak dira, hau da, emakumeen kasuan galtzerdi beltzak edo artilezko galtzerdiak abarkekin edo galtzerdi beltzak eta espartin zuriak. Gaur egun, aldiz, kolore guztietako espartinak aurki daitezke merkatuan. Hortaz, jantzia oinetakoekin konbinatzeko aukera dago. Beltzak izan ohi dira oinetako ohikoenak. Hala ere, gaur egun euskal jantzien oinetakoen eskaintza oso handia da. Jantziarekin bat egiten duten oinetakoak dira orain joera. Burgundiak, granateak, berdeak, urdinak, gorriak eta beste hainbat koloretakoak lor daitezke.






# Entzumena zaintzea osasuna zaintzea da

Entzumena zaintzeak, egunerokotasunean, hainbat arazo ekiditea dakar, hala nola, erorketak, lesioak eta etxeko hainbat istripu, inkomunikazioa, estresa eta bakardadea.

**Entzumena frogatzea zure esku dago.** Gertuan duzun pertsonei entzuteko zailtasuna duzu? Jendeak behin eta berriz hitzak errepikatzea behar duzu? Leku zaratatsuetan entzuteko arazoak dauzkazu? Irrati-telebista entzuteko arazoak dituzu? Ozenegi hitz egiten duzu?



Sintoma hauetariko batzuk nabaritu badituzu... hurbildu guregana.

**Audifonoak zure bizitza alda dezake.** Besteek hitzak errepikatu gabe komunikatuko zara, elkarrizketak arazorik gabe mantenduko dituzu, gutxiago nekatuko zara eta hobe hartuko duzu atseden.

Sakana Optikan audiologiako azken aurrerapenak dauzkagu eta zerbitzu hauek doan eskaintzen dizkizuegu: **Otoskopia digitala, aire bidezko audiometria tonala, hezur bidezko audiometria tonala, hitzezko audiometria eta diskomfort-ataria zehazteko froga.**

# Ordenagailu eramangarrien iraultza

1981. urtean IBM enpresak ordenagailu pertsonala sortu zuen. Gizartean izugarrizko inpaktua izan zuen, bereziki lan egiteko modua aldatu zuelako. Urte berean lehenengo ordenagailu eramangarria asmatu zuten. Ia lau hamarkada hauetan izandako berrikuntza teknologikoak izugarriak izan dira, eta lehenengo ordenagailu horiek oraingokoekin ez dute inolako zerikusirik. Gaur egungoak gutxienez 100.000 aldiz azkarrago doaz. Gainera, biltegiratzea ere handiagoa da.

Iraultza teknologikoaren bigarren aroa Internetarekin iritsi zen. Are gehiago 2000 urtean wifia sortu zenean. Horren ondorioz, ez zen behar ordenagailua kablearen bidez konektatzea Interneta izateko. Beraz, ordenagailu eramangarrien mugikortasuna osoa bihurtu zen.

Gaur egun, ordenagailu eramangarriak PCak baina ohikoak izan ohi dira. Abantailetako bat, esan bezala, eramangarritasuna da. Bestetik, mahaiko ordenagailuen adina kapazitatea dute, eta edozein arloetan erabili daitezke. Hala ere, informatikan adituek diotenez, ordenagailu eramangarria erosi aurretik, garrantzitsua da ordenagailuaren xedea zein izanen den argi izatea. Merkatuan, dena den, lanerako eta aisialdirako baliagarriak diren ordenagailuak badira ere.








948 460 477 LARRAÑETA, 22
ETXARRI ARANATZ




## Kaxeta liburu-denda

Kaxeta liburu-dendan eguberrietarako prest daude. Eskaintza zabala dute bertan. Paper-denda materialez, liburuez,opariez, inprimagailuendako kartutxoez eta jostailuez gain, joan zen urtean martxan jarri zuten eskulan txokoan produktu berriak opa ditzakegu. APLI markako "zuk zeuk egin" produktuak, haurren imaginazioa eta sormena sustatzen dituztenak. Artilez eta gantxilloz eskulanak egiteko beharrezkoa dugun materiala txoko honetan aurkituko dugu ere, orratza mota guztiak, artile, hari eta trapillo matazak... Bitxikeriak egiten dituzte, artisauki, eskumuturrekoak, lepokoak, saskiak, estutxeak, enkarguz eska daitezke zure gustuko kolore eta materialaz egin ahal izateko. Diru-zorroak eta motxilak ere aurkituko ditugu, beraz, mota eta gustu guztietako opariak egiteko ideiak eta aholkuak.




# Sakanak




## ANITA PARKER !!

EGILEAK:
ANITA PARKER




## EZ ERRAN DEUS

EGILEA:
JON ARRETXE




## MAINAMIKIRRI

EGILEAK:
CASTILLO SUAREZ, JOSE MARI MORCILLO ETA ENARA INSAUSTI




## GARABATOS SILENCIO

EGILEAK:
GARABATOS




## LOS DEL RAYO SINFONIKOA

EGILEAK:
LOS DEL RAYO, HAIZE BERRIAK, ERKUDENGO AMA ABESBATZA ETA GONBIDATUAK




## EL MUERTO VIVO

EGILEA:
IÑIGO MUÑOA
EKOIZLEA:
PELLO REPARAZ

# ko sortzaileak




## IA HEMEN

EGILEA:
JUANJO OLASAGARRE



## LA LUZ DE UN SUEÑO

EGILEAK:
HELENA TABERNAREN INGURUKO LIBURUA. CARLOS ROLDAN




## ALTSASU. EL CASO ALSASUA

EGILEA:
AITOR ARRIZABALAGA ETA ARITZ INTXUSTA



## SAREAK EHUNTZAN

EGILEAK:
80 URTE MEMORIA GALTZEN TALDEA




## BALOREAK

EKOIZLEA:
PELLO REPARAZ




## AIXITA POP FUNDATION

EGILEA:
OSCAR ALONSO




## GOZATEGI G PUNTUA

EGILEA:
GOZATEGI




## HESIAN HASIERA

EGILEA:
HESIAN



# Denak balio duen denboraldia



Osagarriak dira 2018/2019 denboraldiko ezinbestekoak. Izan ere, handiagoak edo txikiagoak izan daitezke, baina osagarriek egiten dute diferentzia: jantzi xume batetik aparteko estiloa lortzeko pieza nagusiak izan daitezke. Aurtengo denboraldian joera diren osagarriek 1990ko hamarkadako moda gogora ekartzen digute: gehiago, gehiago da. Hala ere, Coco Chanel diseinatzaileak zioen bezala: "moda modaz pasatzen da, estiloa inoiz". Beraz, norberaren estilora egokitzen diren osagarriak eramatea da estilisten aholkua.

Poltsak ezinbesteko osagarri bat izan ohi dira. Aurten diseinu xumea duten poltsak eramaten dira, ahal izanez gero txikiak eta euskarri luzearekin. Koloreen aldetik neguari aurre egiteko kolore biziak eramaten dira, arrosaren kasu. Gainera, aurtengo joera ere koloredun motxilak dira.

Diruzorroek ere modak jarraitzen dituzte; hortaz, poltsarekin konbinatuta eramatea nahi izanez gero, kolore bizietako diruzorroak dira auten nagusitzen direnak. Animalien estanpatuek ere gogor jo dute aurten jantzietan eta osagarrietan.

Aurtengo osagarri izarra zilarrezko zintzilikariak dira: pieza txiki bat zilarrez inguratuta. Denboraldiko gehigarri efektiboena dela diote modan adituek. Jantzia zintzilikaria zilarrezko belarritakoekin eta eskumuturrekoarekin osa daiteke. Belarritakoen joera, aurten, luzeak eta handiak eramatea da. Gainera, eguberriak distiraren garaia izan ohi da, beraz, kristalak dituztenak garai honetarako aproposak dira. Hala ere, aurtengo joera ere bada koloredun belarritako handiak eramatea. Estilisten hitzetan "esperimentatzeko garaia da".

Eskumuturren alorrean ere modan daude pikorrez egindako piezak. Naif itxurako eskumuturrak dira, hain zuzen, aurten joeran daudenak.

Inoiz modan pasatzen den osagarrietako bat zapia da. Hotzari aurre egiteko bufandari alternatiba izan daiteke, koloretsuagoa, nahi izanez gero. Izan ere, fularrak dira hainbat kolore eta forma onartzen duen osagarrietako bakarrenetarikoa. Hortaz, arazorik gabe konbina daiteke.

Telefono mugikorrek ohitura asko aldatu digute, haien arten, ordua begiratzeko ohitura. Hala ere, erlojuak oraindik ere osagarri oso erabilia izan ohi dira. Aurtengo denboraldiaren modaren arabera erloju klasikoak eramaten dira, handiak eta koloredun uhaletakoak. Irudiak dituzten uhalak ere joera dira orain.


















# 2018/2019ko makillaje joerak

Eguberriak festa ospatzeko apaintzeko eta makillatzeko joera handiagoa izan ohi da. Udazkeneko eta neguko joerak praktikan jartzeko garaia izan ohi da. Aurten ausardia da araua.



**Ezpain ilunak**

Egia esan, inoiz modan pasa ez den joera bat da. Ezpainetarako burgundi, granate, marroi ilun eta gorri koloreak modan jarraitzen dute.



**Fantasia begiak**

Arrosa, horia edo urdina argiak edo fluor eyelinerrak joera dira denboraldi honetan. Betazalaren gainean eramaten dira, eta begiradari bizitasuna ematen diote begi-itzalak erabili gabe. Zilarrezko eyelinerrak, gainera, begiradari argi gehiago ematen dio.



**Katu begiak**

Bogan jarraitzen duen beste joera bat katu begiak dira, hau da, betazalaren gainean marra lodia egin eta begibazterrean amaitu. Ondoren, eyelinerrarekin egindakoa keztatu egin behar da. Bi begiak berdin egiteko trikimailurik bai?



**Argitasuna**

Makillajearen oinarria naturala da, baina aupegiera nabarmentzeko argitasun puntuak jartzea gomendatzen dute: masailetan, sudur puntan eta kokotsean.








# Euskarazko katalogoa

2018ko Euskarazko neguko katalogoa hemen da. Musika, filmak, informatika eta App-ak, aldizkariak, komikiak, liburuak, jostailuak eta jokoak, gurasoentzako materiala, ikasmaterialak eta Ebook-ak zure eskuetara. Guztiak www.katalogoa.eus web gunean. Guztiek ezaugarri berarekin, gure txikiek eta gazteek, baita familiek ere euskaraz kontsumitu dezaten gonbitea egiteko. Hona hemen adibide batzuk:




## BEHATZEN

Aplikazio honek hiru joko ditu. Lehenengoak, Errepikatuta izenekoak, irudi bat errepikatuta duen sorta bat dakar. Errepikatutako irudia zein den asmatu ahala, irudi-kopurua handitu egingo da, eta, aldi berean, errepikatutako irudia antzemateko kontzentrazio-denbora ere proportzionalki luzatuko da. Berria ere pertsonalizatuta dago, eta ehunka irudi erakusten dizkigu: horien artean berria zein den sumatu behar dugu. Irudi berriak igarri ahala, irudi-kopurua eta zailtasuna areagotu egiten dira. Faltan jokoak, azkenik, irudi-kopuru bat eta dagozkien testuak erakusten dizkigu, baina testu horietako bat falta da eta zein den antzeman behar dugu. Behatzen eskuragarri dago bai iOS bai Android sistema eragileetan.

ADINA: 00-04, 05-09, 10-12
URTE: 2018




## KONTUKANTARI 2. MENDIAN IBILTARI

EGILEA: LARESSISTENS

2017ko urrian Balea musika-estudioan grabatutako diskoa.

Nanuk lagun berriak egin ditu. Oraingoan mendi tontorrera igo behar dute, eguzkiak elurtzen du gailurretako elurra, baina aldapeko sagarraren adarraren puntan aurkituko dute loretxo bat eta... Txist! Baxuago abestu! Haurtxo polita sehaskan dago zapi zuritan txit bero...

ADINA: 00-04, 05-09
URTEA: 2018
PREZIOA: <10€




## ZUPANKAPALOAK

EGILEAK: PEJO AÑORGA, JOKIN MITXELENA (CENLIT EDICIONES)

ZER DA ZUPANAKAPALO LIBURUA? BESTIARIO Liburua edo DISPARATARIO liburua? LELOEN feria JITANJAFOREN furia edo ALELUIEN fanderia? Astoaren ARRANTZA edo ahuntzaren gau erdiko EZTULA? BASAKIRTENKERIA mintza edo BUFONKERIA distira? Kale gorrietako blusa edo asfalto beltzeko IRAGARKIEN autobusa?

ADINA: 05-09, 10-12




## MUSUA + FAMILIA MILAKOLORE

EGILEAK: PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS (KATXIPORRETA)

CD LIBURU BIKOITZA: MUSUA + FAMILIA MILAKOLORE *MUSUA disko liburuak 12 kantu eta 12 kontukantu jasotzen ditu. *FAMILIA MILAKOLORE diskoa berriz aurretik argitaratutako 12 kantuen bilduma da.

ADINA: 00-04, 05-09
PREZIOA: 11-20€



# Mundutik Sakanara

## 1. Gabonak ospatzen dituzue?
## 2. Zein berezitasun aipatuko zenuke?
## 3. Zein izango da zuen menua?



## MARCOS JOSE ROCHA BRASIL

**1** Bai, bihotzez bizitzen ditugu eguberriak, gutxi gustatzen zaizkigun pertsonei barkatzeko ahalegina egiten da, munduarekin bakean egoten. Familia osoa elkartzen da.

**2** Brasilen uda izaten da, parrila egiten da, indioilarra jaten dugu. Etxez etxe joateko ohitura dago, ospatzen elkarrekin, jaten eta edaten. Haurrak beraien oparien zain egoten dira, Papa Noelez mozorratzen da jendea.

**3** Hemengo ohituretara moldatuko gara, ospatuko dugu bai!



## LIDIA MARTINEZ SEVILLA

**1** Bai,asko, jendea dotore dotore janzten da gabon gauan eta familian elkartzen gara afaltzera. Oso flamenkoak garenez, dantzatzen eta kantatzen bukatzen dugu.

**2** Belenak, batez ere. Eliza guzietan egoten dira, oso bereziak dira, herri osoak izaten dira, detaile askorekin. Haurrekin joateko ohitura handia dago.

**3** Hestebete iberikoak eta itsaskiak pikatzeko, solomo metxatua saltsan, oso tipikoa da. Mojama ere jaten da. Hemen ere oso gustora jaten dugu menu hau!



## SOKHGA, AISSHA ETA ANTOINETTE SENEGAL

**1** Bai, musulmandarrak izanda ere ospatzen ditugu.

**2** Senegalen, etxean familia giroan ospatu beharrean, kalean ospatzen ditugu, auzokideekin batera afaltzen da, etxez etxe joaten gara. Euskal Herrian gaudenetik, hemen bezala egiten dugu, etxean. Opariak eta guzti!

**3** Ohikoena oilaskoa sukaldatzea da. Tartak eta mazedonia ere prestatzen ditugu. Aukera baldin badago, arkumea labean erretzen dugu.





## FOUZIA EL MECHRAFI
### MAROKO

**1** Ez, gu musulmanak gara eta ez dugu ospatzen.

**2** Urte bukaera ospatu beharrean, urte berria ospatzen da. Urtebetetzea ospatuko balitz bezala, tarta goxo bat erosten da eta bakoitza bere etxean gelditzen da.

**3** Ez dago menu berezirik, betikoa afaldu eta ondoren tarta, esan bezala



## CHAMPA
### BANGLADESH

**1** Bai ospatzen dugu. Gu kristauak gara baina hindu eta musulman asko gure ospakizunera batzen dira, baita gu beraienera ere. Urte zahar eta urte berri egunak ere ospatzen ditugu. Ni urruti nagoenez nire ahizparekin elkartzen naiz Iturmendin.

**2** Gabon gauean eta eguberri egunean, arropa eta bitxi bereziak jantzten ditugu eta janari berezia prestatzen dugu. Oilar mezara eta eguberri goizeko mezara familiako kide guztiak goaz. Dekorazioa oso argitsua eta alaia izaten da. Urte guztian zehar aurrezten da dirua egun hauetarako.

**3** Birania prestatzen dugu, haragia, arroza eta espezia nahasketa bat da. Gosaltzeko amonek edo amek gari fideoak prestatzen dizkigute. Canelarekin eta azukrearekin.



## LUCIA GOIA
### ERRUMANIA

**1** Bai, asko! Urteko jairik garrantzitsuenak dira. abenduaren 24, 25 eta 26ean dena geratzen da, fabrikak eta guzti ixten dute.

**2** Oso gustuko dut lehen eguna, arratsaldez umeak jantzirik agertzen direlako etxez-etxe kantuan. Hemen bezala, ardi larruak janzten dituzte umeek, oso polita da. Prestaketa lan handia dago, etxea goitik behera garbitu, janak prestatu, gauean familia dator eta dena txukun egon behar da. Senarrarekin batera prestatzen dut dena.

**3** Hasteko, aperitibo hotzak, hestekiak, piper hori beteak, tomateekin prestaturiko katilu txukunetan. Berotzeko, zopa eta "sarmale"-a (aza hostotan bildutako, ondo ondutako haragi xehatua, rollito itxura dute). Ondoren, labean egindako txerri burualdea (4 orduz izan behar da, ura, olio, bizigarri eta garagardoz busti eta buelta ematen). Azkenik, Intxaur bizkotxoa eta intxaur tarta, biak. Edateko ardo, garagardo eta kafea. Etxean egindako zukuak ere edaten ditugu: gerezi, masusta gorri, ahabi edo pinazizkoak, denak alkoholik gabekoak.

TANIA
ARRAINDEGIA
Ongi pasa festetan
948 576 300
Mikel Arregi 6
LAKUNTZA

Karasatorre
janaridenda · harategia
Artisau erara egindako hestebeteak
Autozerbitzua
Etxeko tripekiak
TXISTORRA
2. SARIA
Kale Nagusia, 22 · Etxarri Aranatz · 948 460 036

# Jan edanean



## OTARRAINXKA ETA ZAPO BROTXETAK

**Osagaiak:**

- Zotz luzeak
- 150 g. zapo garbi
- 8 otarrainxka
- 4 cherry tomate
- 4 txanpinoi
- piper gorria

**Errezeta:**

Zotzean otarrainxka-isats bat jarriko dugu, ondoren piper zati bat, tomate bat, zapo puska bat, txanpinoi puska bat eta beste otarrainxka bat. Zartaginean olio tanta batzuk botako ditugu eta brotxeta bi aldeetatik erreko dugu. Erre ondoren, gatza larria botako diogu gainetik.








# KAPOI BETEA

**Osagaiak:**

- 2,5 kiloko kapoia
- Betegarriarendako:
  - 75 g. pinazi igortu
  - 1 kopa koñaka
  - 2 ogi xerra
  - bi sagar
  - 50 g. intxaur
  - 50 g. okana hezurgabeko okarrak
  - 50 g. mahats pasa
  - txerri gantza.
- Saltsa egiteko:
  - bi azenario
  - porru bat
  - bi tipula
  - litro erdi oilasko salda
  - oporto kopa bat
  - bi baratxuri ale
  - gatza eta piper beltza

**Errezeta:**

Ogia zatitu eta koñakean behazten jarriko dugu. Sagarrak eta okaranak zuritu eta zatituko ditugu. Fruitu lehorrak nahastuko ditugu. Kapoia beteko dugu nahaste honekin, eta nahi izanez gero, kapoia josiko dugu. Txerri gantzaz igurtziko dugu eta gatza eta piper beltza botako diogu.

Barazkiak garbitu eta zatitu ondoren, ontzi batean jarriko ditugu eta horren gainean kapoia jarriko dugu, labean sartu eta 20 minutuz erreko dugu 250 gradutan. Ondoren, 150 gradutara jaitsiko dugu tenperatura. Oporto ardoa eta salda gehituko diogu. Ontzia estaliko dugu, ez dadin kapoia lehortu. Ordubete izanen dugu labean, noizean behin bustiko dugu. Eginda dagoenean, puskatuko dugu eta gaztaina pureaz eta sagar puskaz lagunduko dugu ( sagarrak gurin pixka batekin erregosiko ditugu, azukre beltza botako diegu).



# GABON KONPOTA BEGANOA

**Osagaiak:**

- 2 litro ur
- litro bat ardo beltz, ona
- 400 g azukre
- kanela, makil bat
- kilo laurden mertxikazati lehor
- kilo laurden aranpasa
- kilo laurden piku lehor
- kilo laurden mahats pasa



**Errezeta:**

Lapiko batean, ura eta ardoa bota eta azukrea eta kanela egosi. Irakiten hasi orduko erantsiko ditugu mertxikazati lehorrak. 20 bat minutuan edukiko ditugu osagai guztiak, bor bor egosten. Ondoren aranpasak, mahats pasak eta piku lehorrak botako ditugu, beste 20 bat minututan edukitzeko. Udareak edo sagarrak erantsiko ditugu azkenik, zurituak eta zatituak. Beste 20 bat minutuan edukiko dugu guztia egosten. Konpota epeltzen utzi eta prest edukiko dugu orduan, izozkiarekin edo saltsa ingelesarekin jateko.



ALTSASU | ARBIZU | ETXARRI ARANATZ | IRURTZUN | ITURMENDI | LAKUNTZA | OLAZTI

# BG txartelarekin eskura dituzun deskontuak

### 13 UDABERRI

30€tik gorako erosketetan landare bat opari. Eskaintza ez metagarria.

### ALDASORO HARATEGIA



30€ko erosketa batengatik etxeko produktua opari.

### ALFA INMOBILIARIA

Etxe edo pisu baten erosketagatik 100€-ko txekea opari.

### AMEZTIA FISIOTERAPIA

Bakarkako sesioetan %5eko deskontua.

### ARKANGOA



Postrea edo kopa doan.

### ASENSIO

100€tik gorako erosketetan hurrengo erosketarako 10€ko deskontu-txartela.

### BILTOKI




Eguneko menuan, kafea doakoa. Karta menuan, kopa doakoa.

### EKIN

100€ko erosketengatik 10€ko deskontu-txartela (beherapenetan izan ezik).

### EROSKI BIDAIAK

%5eko beherapena, hiri hoteletako eta garraio hutsen erreserbetan izan ezik. Eskaintza ez metagarria.

### FORD GABIRONDO



Olio aldaketetan %30eko deskontua. Lan mota guztietako eskulanetan %15eko deskontua.

### GERTU SAKANA



Sukalderako tresnerian 50€ko erosketa egitean %10eko deskontu-txartela hurrengo erosketarako.

### GIXANE ESTETIKA




Produktua opari.

### GK KOMUNIKAZIOA

Argitalpen eta diseinu zerbitzuan deskontua.

### IKER KIROLAK

%10eko deskontua 60€tik gorako erosketetan

### IL PADRINO



Eguneko menuarekin txupitoa doan.

### IORTIA HORTZ KLINIKA

%10eko deskontua aho garbiketetan eta hortz ateratzeetan. Errebisioak doan.

### IRUBIDE JATETXEA



Gosaria (kafea+pintxoa edo bolloa +laranja zuku naturala) 2,50€.

### IZARA



%5eko deskontu zuzena etxeko jantzi eta osagarrietan.

UHARTE ARAKIL | URDIAIN | ZIORDIA | AGURAIN | IRUÑEA | EUSKAL HERRIA

## JOSELEN

JOSELEN
HAUR ETA EMAKUME MODA

100€tik gorako erosketetan hurrengo erosketarako 10€ko deskontu-balea.

## JULENE KORTSETEGIA ETA LENTZERIA



%5eko deskontua 50€tik gorako erosketetan.

## KIKI ARGAZKI DENDA

ALTSASU
KIKI ASENSIO
TEL.:948 469 023
kikiasensioelorza@gmail.com

15x20 cmko 8 argazkiko erreportaje batean beste bi argazki opari.

## LARKA



100€ko erosketengatik 10€ko txartela (beherapenetan izan ezik).

## LASTAI GASOLINDEGIA



0,04€ko deskontua litroko, erregai guztietan.

## LIBURUNDA

Liburunda Alsasua

%5eko deskontua papertegian.

## LOGURE



%15eko deskontua atsedenean.

## LURESU




%20ko deskontua.

## ML

ML
maria luisa

100€tik gorako erosketetan, 10€ko deskontu-txartela hurrengoan erabiltzeko.

## NAMASTE YOGA

namasté
yoga & ayurveda

Bi yoga klase doan.

## NORTE ERLOJUDENDA



%7ko deskontua produktu berrietan, konponketetan eta aldaketetan izan ezik.

## NUEVA IMAGEN ILEAPAINDEGIA



%10eko deskontua.

## PINPILINPAUSA

Pinpilinpauxa

50€tik gorako erosketetan %10eko deskontu-txartela hurrengo erosketarako.

## REDIN LURRINDEGIA ETA KOSMETIKA

Redín

%5eko deskontua osagarrietan.

## SAKANA OPTIKA

Sakanaoptika

%15eko deskontua graduatutako betaurreko osoetan (montura+lenteak).

## SORKUNDE



50€ko erosketetan etxeko produktua doan.

## TIPI TAPA OINETAKOAK

calzados tipi-tapa

60€ko erosketagatik %10eko deskontua (eskaintza ez metagarria).

## TXIKITXO

Ropa de niños y lencería
TxikiTxo

60€tik gorako erosketetan %10eko deskontu-txartela hurrengo erosketan erabiltzeko.

## XAGU

Eguberri on!
xagu
INFORMATIKA

%5eko deskontua 30€tik gorako erosketa eginez gero.

## ZELANDI KIROLDEGIA

zelandi

Lehenengo matrikula doan.

ALTSASU | ARBIZU | ETXARRI ARANATZ | IRURTZUN | ITURMENDI | LAKUNTZA | OLAZTI

### JUGA TAILLERRAK

Olioa aldatzean,%10eko deskontua filtrotan.

### Mª JOSE ILEAPAINDEGIA



%10eko deskontua Art Deco produktuetan.

### ARGIRO OPTIKA



2. lentea doan progresibo guztietan.

### BAIZA MOTOR

Stihl produktuetan %13ko deskontua.

### ENERITZ ILE-APAINDEGIA

%10eko deskontua Schwarzkopf produktuetan.

### ETXARRI HORTZ KLINIKA

%10eko deskontua garbiketetan.

### ETXARRI KOMERTZIALA



% 10eko deskontua atseden ekipoetan.

### HOSTO GORRI ALTZARIAK



338,80 €.
Txartelarekin 321,86 €.

### ILAIA ILEAPAINDEGIA

%10eko deskontua Alfa Parf produktuetan.

### IÑAKI BIZARTEGI ILEAPAINDEGIA

%10eko deskontua produktuetan.

### KAXETA LIBURU-DENDA




19,50 €.
Prezioa txartelarekin 18,50 €.

### LIZARDI ESTETIKA ZENTROA

%5eko deskontua tratamendu guztietan.

### URGAIN ALBAITARITZA

%20eko deskontua kontsultan.

### BEA ESTETIKA ZENTROA

%10eko deskontua gorputzeko eta aurpegiko tratamenduetan.

### FRUITIS JANARI-DENDA

%10eko deskontua fruitu tropikaletan.

### JOSE ITURRALDE TAXIA

%10ko deskontua.

### KATE INFORMATIKA



Portatila edo dorrea erostean, 32 Gb-ko USB-a doan.

### MARTXUETA LIBURUDENDA



Ikus-entzunezkoetan %10eko deskontua.

### PATXI GALARZA AUTOZERBITZUA



50 €ko erosketa eginez gero etxeko produktua opari.

### T. IRIARTE HARATEGIA



50 €ko erosketa eginez gero etxeko produktua opari.

UHARTE ARAKIL | URDIAIN | ZIORDIA | AGURAIN | IRUÑEA | EUSKAL HERRIA

### ZURE EKO DENDA

% 10eko deskontua kontsulta terapeutikoetan.

### VIZU ILEAPAINDEGIA



30 €ko gastuarekin, %10eko deskontua.

### EDERNE ILEAPAINDEGI ETA ESTETIKA ZENTROA

30 €ko gastuarekin, bibotea depilatzea doan. Ileapaindegiko zerbitzuetan, makilaje ukitua doan.

### HOSTOAK LOREGINTZA

40 €tik gora, %10eko deskontua lorontzietan.

### J.M. AGIRRE HARATEGIA



50 €ko erosketa eginez gero etxeko produktua opari.

### TXIMONENA JATETXEA




Menu bereziarekin, kafea edo kopa doan.

### MENDIGAIN URDEIAZPIKOAK

50 €ko erosketa eginez gero etxeko produktua opari.

### NEREA ILEAPAINDEGIA

Garbitu, moztu eta apaindu 27 €.

### TANIA ARRAINDEGIA

50 €ko erosketa eginez gero etxeko produktua opari.

### CLINKER JATETXEA



Menu bereziarekin, txupitoa doan.

### IZASKUN BEUNZA ARKITEKTOA

%10eko deskontua obra berri eta eraikuntza berrien proiektuetan, %20a ziurtagiri energetikoan eta energia faktura irakurketa eta analisia doan.

### VALCARCE GASOLINDEGIA

0´08 €ko deskontua erregai guztietan.

### UHARTE GAZTA

40 €ko gastuarekin etxeko produktua opari.

### KALUXA TABERNA



Menu bereziarekin, txupitoa doan.

### LOPEZ DE GOIKOETXEA HARATEGIA

50 €ko erosketa eginez gero etxeko produktua opari.

### KIXKUR ESTETIKA ZENTROA

Edozein produktu erostean, 2.enean % 20eko deskontua.

### BERGARA CENTRO OPTICO



Graduatutako eta eguzkitako betaurrekoetan %10eko deskontua.

### TEXARTU IRUÑEA



Deskontua edo erosketa oparia.

### BERRIA EGUNKARIA



Harpidetza eginez gero, %50eko deskontua.

Egin zaitez bazkide

948 56 42 75

Euskara
sustatzeagatik

eskerrik asko!

Lau haizetara
zabaltzen
laguntzeagatik

eskerrik asko!

Proiektuan
sinisteagatik

eskerrik asko!

GUAIXE
fundazioa